

...eta

Kitto!

897 zkia.
2014-VII-11

JOSE MIGUEL CALLE UDALTZAINBURUA

Hiru hamarkadako lanari AGUR

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN

Abuztuan irekita

ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.** Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hortz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hortz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutua, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Kutxen pribatizazioa sekulako eskandalua da. Alemanian badituzte antzeko erakundeak, eta ez dituzte pribatu egin. Gizarte eta kultur elkartzunean eginkizun handia zuten, kultur ekintzen sarea osatuz eta etengabeko unibertsitatea sortzen. Krisiaren aitzakiarekin, estatuak eta Europak lagundutako bankuei eman dizkiete, herritarrei ondasun bat kenduta. Horrek ez du esan nahi kutxek ez dutela errurik, edozein banku bezala espekulazio operazioetan sartu baitziren"

(IGNACIO RAMONET, KAZETARIA)

"Pastoralak, sendoak baino gehiago, handiak dira: ematen du oso forma onean direla, baina hori ez da osasunaren marka. Esan nahi du zerbait gure gizarteaz, baina gure kulturaz eta hizkuntzaz ez du ezer esan nahi. Alderantziz: pastoraletan parte hartzen duten jende gutxi daki euskaraz; maskaradetan zailago, proportzioan jende gehiagok behar duela jakin euskara. Euskaraz jakin gabe abestuta, haren kopia hutsala egiten da"

(MAIKA ETXEKOPAR, ANTZEZLEA)

"Eibar, taller hiria liburu askoz gehiago saldu dut atzerrian hemen baino. Nire argazkilaria lana liburu gisa ateratzeko egitasmoa Udalean aurkeztu nuenean, Hirigintza zinegotziak 1.500 euro eskaini zidan negatibo guztien truke. Lau urteko lana zen eta pentsatu nuen: Ez daki zertaz ari den, edo adarra jotzen ari zait"

(JOSE RONCO, ARGAZKILARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KAPAZ IZAN.- Gauza izan, zeozer egiteko ahalmena izan. "Argixa hizkuntza kontuan: txino ikasteko be kapaz da ha".

KAPORAL.- Burua, gaztelera 'cabecilla'. "Hoixe da ba kaporal!".

eskutitzak

ERREBALI BURUZKOAK ARGITZEN

Aurreko asteko alean Erreballi buruz argitaratu genuen gutunaren harira eta hainbat komunikabidetan gaiari buruz argitaratu den informazioaren inguruan sortu den nahasmena ikusita, Maria Jose Telleriak hainbat argibide helarazi dizkigu, idatziz, herritarrei horien berri emateko eskatuta.

Lehenik eta behin, anonimo batek sinatutako gutunetan "udalaren jokoari buruz oso gauza zatarrak" esaten dituela eta, Errebalgo parte-hartze prozesuaren ondorioak biltzen dituen txostenak 46. orrialdean idatziz jasotako konklusio batzuk gogora ekarri nahi ditu, argi gera daitezkeen: "Prozesuak merkataritza gune bat sortzeko asmoa baztertu zuen. Era berean, interbentzioak merkatu komertzioarekin zerikusia duen jardura ekonomiko baten sorrera bermatu beharko duela dago jasota, 'nahiz eta hau ez den ulertzen tradizionalki orubeak jaso duen merkatua bezala'. Beraz, eskaintza ekonomiko hau birdimensionatzea komeniko litzateke, bai tamainuari dagokionez, baita edukiei dagokionez ere. Horrekin batera, proiektuak baseritarrekin erlazio zuzena izan beharko du eta, besteak beste, Rialton irabazitako bisibilitatearen parekoa eskainiko dien espazio bat bermatu beharko zaiela zehaztuta dago. 'Ekoizpen lokal hau abiapuntutzat hartuta, merkatua bertako

produktuen kontsumoan oinarritu daiteke, produktu ekologiko eta artisautza produktuak eskaintzen dituen postuen sorrerarekin. Horrela merkatuaren eskaintza bertako produktu hurbila eta irisgarria litzateke, bestelako ogibide eta ostalaritza postuez osatuta'. Edozein proiektu egin aurretik errealitatera egokituko den merkatu berri honen aurredimensionatzea beharrezkoa izango da beraz, zeinarako deialdi irekia egiten zaien merkatuan interesa izan dezaketen dendariei. 'Planteatutako merkatu berriaren kontzesioari eusten dioten postu biak bareratzeko ezinbestekoa izango da eta, hori ez balitzateke jasagarria izango, alde bien arteko adostasuna lortu beharko litzateke".

Bestalde, prozesuan esandakoak parte hartzen izan ziren guztiek elkarrekin jaso zituztela kontuan izanda, ezin da ulertu "gutunak MonoD eta M-etxearen profesionaltasuna zalantzan jartzea".

Amaitzeko, eta azken egunotan gaiaren inguruan piztu den eztabaida ikusita, gauzak argitze aldera, udalak Erreballi buruzko informazio guztia bere webgunean batu du (gorago aipatutako txostena barne), gaiari eskainitako atal berezi batean (www.eibar.eus/eu/udala/errebal).

MARIA JOSE TELLERIA

HURRENGO ALEA IRAILAREN 5-EAN

Esku artean duzuen ale honekin amaitzen dugu ikasturtea. Hurrengoa, oporretatik bueltan eta Arrateko jaien aurretik, irailaren 5ean jaso ahal izango duzue. Ondo pasa oporrak eta bueltan ikusi arte!

ERREDAKZIOA



Euskara Elkarteak

ARGITARAZTZAILEA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com
Elkartaren E-MAILak: elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** J.L. Gorostegi
BANAKETA-ARDUADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibariko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Lopez de Gereñuk kargua lagako du

Nuria Lopez de Gereñu Confebaskeko buruak ohar baten bittartez kargua lagatzeko bere asmuaren barri emon eban aurreko astian. Hori jakiñ eta jarraixan, Confebaskek beste ohar batian "bere ibilbide personalian zein profesionalian beste esparru batzuetan aritzeko nahixak eragindako erabagi personala" zala emon eban aditzera, enpresarixuen erakundeko batzorde eragilliak erabagixa "ulertu, onartu eta errespetatu" egitten dabela gaiñeratuta. Horrekin batera, Confebaskek Lopez de Gereñu eibartarrari esker ona adierazi zetsan oharrian, "2011ko urtarrillian erantzukizuna hartu ebanetik egindako biharraren-gaittik". Edozelan be, kargua lagako dabela ezagutzera emon badau be, oindiok aukeratzeko dagan ordezkuari "aldaketa lasai eta ordenatu bat bideratzeko asmoz" karguan biharrezkua dan denpora emongo dabela aurreratu dau Lopez de Gereñuk.



Berriketan programiari errekonozimendua

Berriketan, Eibarko udaleko Inmigraziño alorreko programiari errekonozimendua egin detsa Europako Komisiñuak, hizkuntza boluntariotza programia "etorkiñen gizarteratzerako praktika on modura" aukeratuta. Horrekin batera, Berriketan programiari buruzko informaziñua European Web Site on Integration (EWSI) dalakuan interneten zintzilikatu dabe, holan Europako edozeiñ herrialdeko politikuak eta profesionalak horren gaiñeko informaziñua konsultatzeko aukeria euki deixen.




Akatsa zuzentzen

Aurreko aleko 6. orrialdean Amaia Aseginolaza eibartarrari egindako elkarriketan hankasartzea izan genuen eta berari ez zegozkion irudiak kaleratu. Bera Baionan bizi denez, elkarriketa telefonoz egin genion eta, pertsonalki ezagutzen ez genuenez, identifikatzerakoan nahastu egin ginen eta berarekin saria jaso zuen Arantza Jauregiren irudiak argitaratu. Gure irakurleei esker (Arantza Arrietari hain zuzen), aukera izan dugu akatsa zuzentzeko eta eibartarrari aurpegi zuzena ipintzeko. Lerro hauetatik barkamena eskatzen diegu Amaia Aseginolazari eta bere ingurukoei, eta eskerrak ematen dizkiegu gure kolaboratzaileei.

Eskillara mekaniko barrixak

Untzaga eta Txaltxa Zelai batzen dituduen eskillara mekanikuak, lau zatixak kanbi-xau egingo ditudela emon dabe aditzera. Gurian martxan ipiñi ziran lehen eskillara mekanikuak dira horrek eta, hamalau urte pasau dirala ikusitta, gobernu-taldiak zeozer egitteko premiñia ikusi dau eta, horregaittik, eskillara zaharrak kendu eta barrixak ipintzia erabagi dabe. Horrekin batera, eta behiñ baiño gehixagotan eskatutakuari erantzunda, eskillara barrixak tapauko ditudela aurreratu dabe. Biharrak Thyssenkrupo Elevadores enpresari esleitu detse (452.794 euruan, BEZ barne) eta behiñ hasitta, hamaika asteko epian biharrak amaitzia aurreikusi dabe.



Bestalde, Bista Eder eta Eulogio Garate kalien arteko igogailu publikua eraikitzeko biharrak Obras Especiales Gipuzkoa enpresari esleitu detse (440.932 euran, BEZ barne) eta, dana ondo badoia, abendurako martxan ipintzeko asmua dake.



Amañako jaixetako zozketia

Amañako jaixetan egindako zozketan Erromara bidaia irabazi daben Edurne Rodriguez-ek eguaztenian jaso eban biajian juateko txartela, Julian Etxeberria kaleko Barceló Viajes-en buleguan. Argazkixan ikusi zeinkien moduan, sarixa Carlos Gonzalez Amesti bulegoko zuzendarixaren eta Jose Antonio Alberdi "Goma" Amañako Jai Batzordeko ordezkariaren eskutik jaso eban.

Udako merkealdi berezixa

Eguaztenian zabalduko dabe merkealdi azoka berezixa **Toribio Etxebarria kalia**n. Barixakura arte egunero 10.00etatik 20.00etara zabalduko daben azokan 26 bat dendak hartuko dabe parte, orotariko produktuak merke-merke salgai ipiñitta. Bestiak beste arropak, oiñetakuak, barruko arropak, kirola egitteko jantzixak, osagarrixak eta dekoraziñorako artikuluak erosteko aukeria egongo da. Eibar Merkataritza Gune Irekiak udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntasunarekin antolatutako azokaren inguruan jarduera osagarrixak antolatu dittue: azoka egunetan inguruko tabernarixak bezerueri pintxua emongo detse (11.00etatik 14.30xetara). Deportibuaren azpitan Kutxabank-ek dakan buleguan, barriz, 2-6 urte bittarteko umiendako jolasgunia egongo da zabalik, begiraliekin (11.00etatik 13.30xetara eta 17.00etatik 19.30xetara). Eta anbulatorixo parian tiobibua ipiñiko dabe (domekara arte, baiña azoka egunetan txartela merkiagua, euro batian salduko dabe).



Kanbixuak KZgunean

Portalea barruan dagan KZgunean aldaketa inportantiak egon dira azken astiotan, kalera-tziak tartian. Araba eta Gipuzkoako KZguneetako bihargiñak bialdu deskuen idatzixan jaso dabe-nez, "probintzia bixetako KZguneetan biharrin geguazen lagun guztiak kaleratu gaittue



eta jendiak horren barri eukitzia nahi dogu, KZguneak danon diruarekin gestionatzen dira-eta. Oiñ arte lurralde bakoxteko enpresa batek gestionatzen zittuan (Gipuzkoan, Ibermaticak), baiña kontratua 2014ko ekaiñaren 30ian amaitzian, zentruen kudeaketia atzera be lehiaketara etara eta Indra / LKS (UTE) enpresiak irabazi eban". Kudeaketiaz arduratzen dan enpresia aldatziarekin batera, oiñ arteko bihargiñak kaleratu dittue, euren tokixan "askoz be baldintza eskasaguak dittuen beste batzuk" ipintzeko. Gauzak holan, Eibarko KZgunean arduradun barrixa dago uztaillaren 1az geroztik.

autuan

GURE BALIOAK

2014ko Gure Balioak Sarirako hautagaixak proposatzeko epia amaitzear dago, baiña baten bat animau ezkeru, oindiok denporia daka, azken eguna martitzena (hillak 15) izango da-eta. Hautagaitzak zelan presentau bihar diran eta bestelako argibidiak begiratzeko gurebalioak.com helbidera jo leike.



EIBAR SAHARA

Beste batzuetan egindakuaren bidetik, asteburuan erabilitako liburuen azokia ipiñiko dabe Eibar Sahara Elkartekuak Untzagan. Zapatuan eta domekan, egun bixetan, Untzagan egongo dira, 11.30xetatik 20.00etara.



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net

Asier Serranoren 3 diskoak



"Ez Esan Inori"



"Gerrari bai"



"Hoteleko kantuak"

10 eurotan ...eta kitto-ko bulegoetan



Funeraria Ehorztetxe

Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea

GRUPO
Funeuskadi

Sankristobalگو jaixak beteko dabe asteburua

Atzo San Kristobal eguna izanik, izen bereko auzuan futbolin eta igel-toka txapelketekin hasi ziran jaixetarako preparatzen, baiña programia osatzen daben ekitaldi gehixenak asteburuan pillatu dittue La Rampa jai batzordekuak. Gaur 19.00etan txupinazuarekin hasi eta domekara bittartian, San Kristobalen bizi diranak eta jaixak erakarritta auzora inguratzera animatzen diranak asteburu bete-betia dake aurretik. Gaur arratsalderako antolatu dittuenen artian, bestiak beste auzokide ezagunari omenaldixa (aurten Borda tabernako Esteban eta Ernes omenduko dittue) eta orkestiak lagundutako kalejiria beteko dabe arratsaldiaren lehen zatixa, Fray Martin Malleako parkian egingo diran umiendako jokuekin batera. Gaiñera, auzoko tabernetan zein Jai Batzordiarekin txosnetan bezerueri tortilla, txorizua, urdaiazpi-

kua eta gaztaia banatuko detse. Gaberako, barriz, Lambretta Klubekuekin alkarlanian antolatuta, 23.00etatik aurrera Melissa&The Jacks taldiak kontzertua emongo dau. Hori amaittu eta jarraixan, Leñoren abestixak eskintzen dittuan La Leñera taldekuak igoko dira taula gaiñera. Eta talde bixen emanaldixak amaittuta baten batek oindiok musika egarrixa badaka trankil egon leike, 02.00xetan Rock Greatest Hits dalakua hasiko da-eta.

Zapatuan goizetik ekingo detse jaixari, 10.30xetan hasiko dan umiendako marrazki lehiaketarekin. Ondoren umiak Molto motorren konzentraziñuan eta lasterketan parte hartzeko aukeria eukiko dabe eta 12.30xetan Aizarnako parkian sandia-jana hasiko da. Eta urtero lez, aurten be asteburu honetan egingo dan Lambretta motorren konzentraziñuarekin bat egingo dau jaixak tarteka:



Jai Batzordekuak eta udaleko ordezkariak aurkezpenian. SILBIA

bixar 13.00etan Lambretta motorren XI. Igoeria hasiko da eta, motorzaliak San Kristobalen batzian, hamaiketakua eta motorren erakusketia egingo dabe, danak alkarrekin bazkaltzen hasi baiño lehen. Arratsaldeko txapelketak eta bestelakua amaittuta, herri-afarixa egingo dabe eta 23.00etatik au-

rrera atzera be musikaren gozatzeko aukeria egongo da: "Que tiempo tan feliz" (60-70. hamarkadetako guatekiarekin hasi eta Alcantara orkestakuekin jarraituta. Gau-txorixendako txokolate-jana 03.00etan hasiko da. Eta domekan be egun osorako programia preparau dabe (ikus 21. orrialdea).



Golden Apple Quartet-en aktuaziñua plazan egin zan azkenian, ateri eguala aprobetxatuz. LEIRE ITURBE

Amaña, jaixetako bigarren astebururako prest

Aurreko asteburuan ondo baiño hobeto ospatu zittuen jaixak Amañakuak, barixaku arratsaldian hasi eta domeka gaberarte. Egurdixaren inguruko iragarpenak asteburu euritsua izango zala esanda be, azkenian egurdixa portatu egin zan eta programiak jasotzen zittuan ekitaldixak arazo bari egin ziran. Jai Batzordiak antolatutako ekitaldi gehixenak pasauta dagoz, baiña asteburu honetan be egongo da zer egiñik: auzoko jubilaundako urtero antolatzen daben bazkarixa gaur izan da eta 21.30xetan, barriz, Caserio tabernan bertso-afarixa hasiko da, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolarixekin. Eta bixar 11.00etan Goruntz abesbatzaren parte-hartzia eukiko daben mezia ospatuko dabe auzoko elizan.

MARITXU AGIRREBEÑA ARRIOLA

1. urteurrena: 2013-VII-7



Ez da egon unerik zutaz oroituz ez garenik.

MAITE ZAITUGU, AMAMA. MUXU BAT.



Erregistro Zibilak desagertzeko bidean

Justizia ministroak proposatutakoari jarraituta, gaur egun erregistro zibiletan eskaintzen diren zerbitzuak etorkizunean merkataritza erregistradoreen eskuetara pasatzea onartu zuten Ministruen Kontseiluak uztailaren 4an. Lege-Errege Dekretua onartu berriak zuzenean eragingo dio erregistro zibilei buruzko 2011. urteko legeari eta, horren ondorioetako bat, 2015. urteko uztailaren agiri eta espedienteen tramitaziorako plataforma digital berria martxan ipintzea izango da.

Erregistro zibiletako beharginen hilaren hasieran onartu duten aldaketa hori ez dute begi onez ikusten eta, besteak beste, aldaketa herritarren kalterako izango dela diote. Juan Gisasola kalean, epaitegi barruan dagoen erregistro zibilean bi behargin daude eta eurek azaldu digutenez, "hemen egiten dugun beharra merkataritza erregistroetara eramateak ekarriko dituen kalteen artean, orain hemen egiten ditugun tramiteak egiteko Eibartik kan-

pora joan beharra da. Izan ere, Eibarren horrelako erregistrorik ez dago eta, beraz, aldaketa indarrean sartzen denean herritarrek derrigorrez Donostiara joan beharko dira edozein agiri eskatu edo bestelako tramiteren bat egitea egokitzen zaien bakoitzean".

Eibarko erregistro zibila martxan ipini zela 30 urte baino gehiago dira eta, beraz, horrenbeste urte eta gero herrian dagoen bulegoa desagertaraztea atzerapauso handia dela pentsatzen dute bertako beharginek: "Egunero jende mordo hartzen dugu bulegoan eta hamaika tramitazio bideratzen ditugu. Guk eskaintzen ditugun zerbitzuen artean, besteak beste, ume jaioberrien inskripzioak, ezintasuna dutenen edo adin-txikikoen tutelak, ezkontza-espedienteak, abizenen grafia aldatzea, abizenen orden-aldaketak, nazionalitate-eskaerak, familia liburuak eta beste batzuk daude. Baina hartu berri duten erabakiaren



Erregistro Zibileko beharginek ezkutuko arazoak ikusten dituzte neurrian.


ondorioz, datorren urtetik aurrera Donostiaraino joan beharko da jendea horietako edozein egin behar badu".

Ministruen Kontseiluak erabakiaren berri ematean argitu nahi izan duenez, erregistro zibiletako bulegoak itxiko diren arren, beharginen lanpostuei eutsiko zaie eta zerbitzuak, orain arteko moduan, etorkizunean ere doan eskaintzen jarraituko dute. Hala ere, erregistro zibiletan horren inguruko zalantza ugari dagoela esan digute.

Ministro Kontseilukoek aldaketa horretarako arazoi nagusia "gaur egun erregistro zibiletan sortzen diren ilarak saihestea" dela diote, baina erregistro zibilekoek beste arazoi ezkutu batzuk daudela pentsatzen dute eta, besteak beste, erabakiaren atzean beste hainbat tokitan egunero egiten ari diren murrizketak daudela diote. Erabakia hartu dela egun gutxi dira, baina seguruenik horren kontrako protestak eta mobilizazioak egingo direla aurreratu digute.

MARIA GISASOLA UGARTEBURU

1. URTEURRENA: 2013-VII-11



ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira **GURE ARTEAN.**

Zure familia



Mertxe
Baglietto
Arrizabalaga
1. URTEURRENA
2013-VII-12



ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira **GURE ARTEAN. ETXEKOEK**

Jose Miguel Calle orain arteko Eibarko udaltzainburua jubilatuta berri da, postu horretan 31 urte egin eta gero. 1983ko maiatzaren 1ean hartu zuen kargua, Merkataritza-Nabigazioko kapitain hamar bat urte egin ondoren. Sasoi hartan ohikoa zen udalek lan horretan jardundakoak hartzea postu horretarako, "militarrak izan barik, aginte esperientzia izatea eskatzen zalako". Bizitza erdia udaltzainburu karguan emanda eszeptikoa bihurtu da, "bai erakundeekiko baita beste gauza askotarako ere. Errealitatea eta bere inguruak ezagutu ditut eta, dagoeneko, ez dut ezertan sinesten". Hori bai, "Eibar eta eibartarrak gustoko ditut eta betiko egongo naiz herriari lotuta". Ez du agurrik maite: "Ez naiz hain zaharra", dio.



JOSE MIGUEL CALLE (Udaltzainburua):

"Udaltzainarena lanbide aproposena da herria eta herritarrak ezagutzeko"

- Zelan hartu duzu jubilazioa? Bazenuen gogorik Valdegobiara bueltatzeko?

Bizi, Gasteizen bizitzen jarraitzen dut. Valdegobiara, batez ere, astebukaeretan joaten naiz. Momentuz behintzat oporretan nagoela esango nuke, amaitzen ez diren oporretan. Hiru urte eman ditut baratzeko kontuak ikasten eta betidanik gustokoa nuena, ahaztuta izan arren, berreskuratzeko pozik nago. Zelako tomateak ditudan oraintxe bertan!

- Udaltzainburu postua lagatzeko gogorik bazenuen? Zeini pasatu diozu lekukoa?

Hiru urte lehenago, 62 urterekin, jubilatuta naiz, baina justu tokatzen zitzaidanean, nire momentuan, aurretik ere hamar urtetik gora emanak nituen-eta itsasoan. Nire postua orain Jon Kruzelaegiri egokitu zaio eta bere postuarekin ez dakit ondo zer egingo duten. Imaginatzen dut hemendik hiru urtera-edo akaso oposaketak izango direla nagusi-orde izateko.

- Zein gauza on eta txar izan ditu zure lanpostuak? Zeretik gehiago?

Positiboa da gizartea ezagutzeko ematen dizun aukera: esango nuke tokirik onena dela jendea ezagutzeko. Arlo negatiboa aipatzen hasita, egunero kritikak jasotzearena azpimarratuko nuke. Baita sentitzen duzun bakardadea ere. Baratzean, aitzurra lagun dudala, egunero nabaritzen dut metro batzuk aurrera egin dudala; udaltzain batek zailago du progresio edo bilakaera hori ikustea. Udaltzainarena ezin da lan polita moduan izendatu: erretzeko arriskua dago.

- Eibartarrok larregi eskatzen diogu udaltzaingoari?

Eskatzeara zuzena da eta eibartarrak historian askotan egin dute; hori oso ondo dago, egokia da. Horregatik aurreratu da herria eta hainbat lorpen sozial beste inon baino gehiago bereganatu ditu. Dena dela, eskatu beti neurri batean egin behar da: Eibarrera heldu eta gutxira Txontatik deitu zidaten telebista ez zela ikusten esanez... Hori Gasteizen eginez gero, antzarak ferratzera bidaliko zintuzten. Ha-

la ere, ez da ohitura txarra, konfidantza erakusten baitu; hori bai, nekatzeraino batzuetan.

- Jubilatzerakoan bi plan (edo ohar, zuk diotzun moduan) pasatu dizkiezu politikoei. Aurretik ez zizuten kasu handirik egin ala?

Mugikortasun eta Emergentziatzeko planak dira, polemikoak ere izan daitezkeenak, oso erradikalak eta kritikoak direlako. Baina abenduan aurkeztu nizkien, jubilatuta aurretik. Kasurik egiten zidaten? Ezin duzu denak zure alde izan, zailegia da hori. Eta politikoekin guztiz eszeptikoa naiz, botoirik ere ez dut ematen. Berdin sindikatoekin, elizarekin... hortik kanpo ere aurkitu ditzakezu lagunak.

- Egoera batzuen aurrean protokolo falta nabaritu duzu plan horiek aurkezteko?

Protokoloak badaude, batzuk hobetu badaitezke ere. Nire esperientzia da laga diedana, zeozertan lagunduko diedalokan. Espero dut mesedegarri izatea. Polemika piztu duena mugikortasunari buruzkoa da, trafikoari begira Eibar gizatiarragoa



● tartak

● enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Aire berriak!

Khôl

Estilistak

Estaziño, 4

943 254776


planteatzen dudalako. Oinezkoen alde jo beharko genuke gehiago, kaleak berreskuratu elkarbizitzarako eta protagonismoa eman pertsoneri

- Ertzaintza herrian dugunetik, zeregina erosoagoa bihurtu da udaltzaintzat?

Ertzaintza etorri aurretik lan gehiago genuen, egia da, eta 1983-1993 tarte horretan urtero epaileari 700 diligentziatik gora pasatzen genizkion hainbat delituegatik eta 200etik gora istripuak zirela-eta. Gaur egun bakoitzak bere esparruak ditu eta ez dago arazo berezirik. Dena dela, arlo judizialean gu hasi ginen, lan gogorra eta handia eginenez, eta politikoen asmoa zen guk arlo hori lagatzea; baina judiziala nire lana da. Eibarren zer gertatzen den, informazioa izatea gure funtzioetako bat da. Eta, gainera, horrela da: guk informazio gehiago dugu.

- Delinkuentzia gutxiko herria da gurea?

Beldur pixka bat ere ematen du horrela-ko adierazpenak egitea, baina ez dago delinkuentzia askorik. Egia da. Hori bai, bihar



Callek 31 urte eman ditu Eibarren udaltzainburu, bere bizitza erdia. Gasteizen bizitzen jarraituko badu ere, Gaubea/Valdegovia jaioterrian hasi da baratzean lanean. JAVI LEON

bertan atrako bat gertatzen bada, polito ipiniko naute.

- Zenbat udaltzain daude Eibarren? Nahikoak dira edo gehiago behar direla esango zenuke?

Orain 40 daude, baina baliteke beste hiru lanpostu gehiago ateratzea: kopuru ofiziala 43 delako. Udaltzainburu batek, dena dela, beti eskatuko du gehiago. Eibar Football Taldearen igoerarekin lan gogorra aurreikusten dut hurrengo denboraldirako. Uste dut Eusko Jaurlaritzari, Arkauteri, astebukaeretakako zortzi lagun gehiago eskatu behar dizkiogula, guk dirua gastatu barik. Hori gomendatu dut dagoeneko.

- Dena dela, jarraituko duzu Eibarrera etortzen, ezta?

Emaztea eta bere familia horkoak izateaz gain, hilaren 17an auzitegian egon behar dut, esaterako. Hiru hitzordu edo badituz hor auzitegian: zeregin transbersala dut oraindik.

KARGUA LAGATZEAREKIN BATERA, JOSE MIGUELEK PLANGINTZA BI LAGA DIZKIE HERRIKO ORDEZKARIEI, BERAK BEREZIKI PRESTATUTAKO OHARREKIN : BATA LARRIALDITASUNEKOA DA ETA BESTEA, POLEMIKOAGOA BIHURTU DENA, MUGIKORTASUNARENA. Lehenengokoan gure herrian izandako istripu bitxi batzuen berri ematen du, gomendio batzuekin batera: koltza olioia (oraindik ez da arautegia errespetatzen elikagaiekin), Oizeko istripua (kaotikoa izan zen protokolorik ez zegoelako), Hotel Arrateren behera etortzea (zorte handia inor ez harrapatzea), su-hiltzaileen istripua Monroe-n (bolondresak ziren gehiago profesionalak baino), Azitaingo tren istripua (kuriosoek arazoak besterik ez dute ekartzen eta segurtasun perimetroa ezarri behar da eta gogor egin).



**Amets
ARZALLUS**



**Andoni
EGAÑA**

*Arrateko bertso-afaria
irailak 7 domeka
Kantabrian 21.00etan*

SARRERAK BAZKIDEENTZAT

salgai 30 eurotan

(bazkide bakoitzak sarrera bana)

uztailaren 18ra arte ...eta kitto!-n

(10.00-14.00 eta 17.00-20.00)

BAZKIDE EZ DIRENENTZAT

salgai 31 eurotan

uztailaren 21etik aurrera Sagar Bitza, Kultu eta Kantabria tabernetan



**Maialen
LUJANBIO**



**Sebastian
LIZASO**

Azken urteotako martxari jarraituta, aurten ere Eibarren abiatu dira udako ikastaroak, UEU-ren egoitza nagusia hartzen duen Markeskua jauregian: ekainaren 30etik uztailaren 4ra bitartean lehen ikastaro-sorta eman zen gurean eta, uztailaren 9tik 11ra bitartean Baionaraino salto egin eta gero, datorren astelehenean Eibarrera bueltan etorriko zaizkigu, hilaren 18ra arteko eskaintzarekin. Iruñean agurtuko dituzte 42. udako ikastaroak, uztailaren 21etik 23ra bitartean emango diren kurtsoekin.

IÑAKI ALEGRIA:

"Ikastaroen xedea ikasleek ezagutza zabaltzea eta profesionalekin harremanak bultzatzea da"

Aurten zuzendari kargutik biziko ditu ikastaroak Iñaki Alegriak. Informatikan aditua den donostiarrak 42. edizio honetan "Saretu" goiburua daukaten ikastaroez hitz egin digu.

- Zer espero duzu dagoeneko hasita dauden ikastaroetatik?

Aurten inoiz baino ikastaro gehiago dauzkagu, matrikulazioa ondo joan da eta badakigu arrakastatsuak izango direla. Betiko moduan, izena eman dutenak pozik ateratzea, asko ikastea eta datorren urtean bueltatzeko asmoa izatea espero dugu.

- "Saretu" goiburuarekin zer edo nor saretu nahi duzue?

Ikastaroetarako erabilita ere, berez urte osorako goiburua da. Besteak beste, jakintza arloen artekotasuna lantzeko gure asmoa azaltzeko erabili nahi dugu. Izan ere, ohiko unibertsitateetan espezialitate bakoitza ondo lantzen da, baina jakintza arloen arteko harremanetan hutsuneak antzeman ditugu eta horiek betetzera datoz gure ikastaroak. Irakasle, profesionalen eta ikasleen arteko harremana landu nahi dugu eta, horretarako, ikastaroekin tartekatuta jardunaldiak ere antolatzen ditugu. Erakunde txikia gara eta, beraz, beste batzuekin elkarlanean aritzen gara. Ikastaroak horretarako tresna ere badira.

- Zein da ikastaroez gaur egun betetzen duten funtzioa?

Adin bat daukagunok, UEU udako ikastaroen antolatzaile modura ezagutu dugu eta, gainera, sasoi hartan, bakarrik unibertsitate munduko ikasleak biltzen zituen. Baina urteekin gauzak asko aldatu dira eta, gaur egun, ikasleen erdia baino gehiago kurtsoaren gaiak berak erakarrita etortzen diren profesionalak dira. Hasierako garai hartan UEU unibertsitate mailan euskaraz aritzeko erreferentzia ere bazen, besterik ez zegoelako, baina zorionez horretan ere aldaketa izan da. Beraz, gaur egun ikastaroen funtzioa ikasleek haien ezagutza zabaltzea eta profesionalekin harremanak bultzatzea dela esan dezakegu.

- Azken urteetan izen-emateetan goranzko joera somatu duzue, ezta?

Matrikula kopuruak orain urte bi egin zuen gora, iaz pixka bat gehiago igo zen eta gure helburua gutxienez horri eustea da. Baionan emandako igoera bereziki pozgarria egin zaigu, han hasi ginelako ikastaroekin.

- Zertan nabarmentzen dira UEUko ikastaroak besteengandik?

Besteak ez bezala, gureak formatu txikiak dira. Euskara hutsez dira, batzuk oso praktikoak, beste batzuk, berriz, hausnartzekoak. Irakasle eta ikaslearen arteko harremana oso horizontala da eta horrek jakintza bien artean partekatzeak aukera ona ematen du.

- Nola animatuko zenuke UEU ezagutzen ez duen norbait ikastaroren batean parte hartzera?



Giro euskaldunean bizi bada, aurreko edizioetan parte hartu dutenekin berba egitea gomendatuko nioke. Gehienek ikastaroen inguruko oso oroimen ona izaten dute eta askok errepikatzen dute. Eskaintza benetan zabala da eta ikastaro guztien artean baietz gustokoren bat aurkitu. Eta giro euskaldunean bizi ez bada, berriz, lagun euskaldunak egiteko toki oso aproposa dela esango nioke.

- Ikastaroak zuzendari kargutik bizitzea egokitu zaizu lehen aldiz. Askok aldatzen da ikuspuntua?

Ikastaroak ondo baino hobeto ezagutzen ditut, 25-30 urtez ikasle eta irakasle modura hartu dut parte lehenengo eta, ondoren, antolatzailea ere moduan izan nintzen. Orain lehen baino behar handiagoa ematen didate, baina edozelan ere ondo moldatzen naiz.

LIKIDAZIOA

Valenciaga  **%50eko deskontuak**

K O N F E K Z I O A K

Zuloagatarren, 7 ☎ 943 20 22 33

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Euskal Hedabideen Behategia, euskal komunikazioa indartzeko

Markeskuan uztailaren lehen egunetan egindako saioetan, besteak beste, euskal hedabideen egoeraren inguruko hausnarketa egiteko tartea izan zuten ikastaroen harira antolatutako **"Euskal komunikazio-eremua: ikerketa eta ekintzarako gure bideen bila. Euskal Hedabideen Behategi-rantz"** jardunaldira joandakoak. PATXI AZPILLAGA EHU-ko irakaslearen gidaritzapean, hiru ideia nagusi azpimarratu zituzten: euskal komunitatearen barruan hedabideek daukaten garrantzia, horien arteko elkarlana eta gaitasun beharrekotako erronkak. Horrez gain, etorkizunari begira, Euskal Hedabideen Behategia egitasmoari buruzko hainbat argibide ere eman zituzten. Azpillagak esandakoari jarraituta, erroka nagusia behategi bat antolzea da eta, horretarako, Hekimenekin (Herri ekimeneko hedabideen elkartearekin), Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitateko hainbat irakaslearen indarrak batuta, egitura edo proiektu bat gorpuztu nahi dutela adierazi zuen. Egitasmoaren eginkizunak ere aurreratu zituen: **"Euskarazko hedabideei zein euskarazko komunikazioari beste ikuspegi bat emateaz arduratuko gara eta, horrez gain, herri ekimeneko hedabideekin beharrezko jardungo dugu, euren errealitatea ezagutzeko eta daukaten premiei egokitzeko bidea egingo dugu"**.

Proiektu berriaren nondik norakoak ALBERTO BARANDIARAN eta ALAITZ ARTOLA-LAZABAL **Hekimeneko** kideek azaldu zituzten eta, besteak beste, **"kazetaritzaren munduan, eta oro har, hedabideen munduan eta komunikazioan gertatzen ari diren aldaketa etengabeko eta basatiak antzeman eta interpretatzen jakiteko"** jaiotako proiektua dela argitu zuten. Euren berbetan, **"datozen aldaketak guztiak interpretatzeko eta bidea aurkitzeko erakunde bat izatea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu"**.



Patxi Azpillaga.



Alberto Barandiaran.

Barandiaranek azaldu zuenez, Euskal Hedabideen Behategiaren oinarrian hainbat giltzari hartu zituzten kontuan: besteak beste, informazio eta kazetaritzaren eraldaketa; teknologia berriak, globalizazioa eta espezializazioa; hedabideen kalitatea eta independentzia; eta, amaitzeko, hedabideek hizkuntzaren garapen eta normalizazioan betetzen duten funtzioa. Behategiak hiru hankadun harremana sortu duela gaineratu zuen, proiektuan hedabideak, unibertsitateak eta administrazioa elkarlanean baitaude. Proiektuaren ildo nagusiak, bestalde, ikerketak, merkatu azterketak eta prospektiba dira.



Iparragirrek bi ikastarotan hartu du parte eta pozik dago esperientziarekin.

Udako ikastaroetako ikasleen erdia berria izan ohi da. Arantxa Iparragirre beasaindarrarentzat UEU ezezaguna zen, aurtien ikastaro bitan parte hartu duen arte. Elkarrizketa egiteko "Musikaren erabilera eta bizipena haur hezkuntzan" izenburukotik atera dugu, bere esperientzia kontatzeko.

ARANTXA IPARRAGIRRE:

"Ikastaroan dena praktikoa izateak harritu nau gehien"

- Zergatik matrikulatu zara ikastaro hauetan?

Betidanik sentitu izan dut barruan altxor bat daukagula denok. Azken urteetan umeekin izan ditudan esperientzietan ondo moldatu naizela uste dut, baina barruan gauza gehiago nituela sentitzen nuen eta, barruko horiek ateratzeko premia nuen, horretarako teknika berriak ikasi behar nituen. Umeekin begirale jarduteko kurtsoa bu-

rutu dut eta, praktiketan nengoela, hainbat gauzatan gogo berezia ipintzen nuela ikusi zuen koordinatzaileak. Gaian interesatuta nengoela ikusita, ikastaro hauen berri eman zidan. Izenburuak irakurri eta berehala pentsatu nuen hori zela bila ari nintzena eta hauxe zela momentua.

- Eta nolako esperientzia ari da izaten?

Oso polita. Ikastaroan ezagutzen ari naizen tekni-

kei esker nik barrenean, ezkutuan nituen hainbat gauza kanpora ateratzen ari naiz. Beste ikastarotetan, oro har, papera eta boligrafoa hartu eta ia denbora guztian teoria hutsa ikasten da. Baina kurtso honetan dena praktikoa dela harritu nau gehien. Orain arte egin ditudan ariketa guztiekin disfrutatu dut eta klasean oso giro polita dago. Ikastaroa ezin-hobe ari da izaten.

GREMIOEN GIDA

ALTZARIAK

SATMOBEL
ZURE ETXIKO ALTZARIEN KONPONKETA ETA GARRAIOA

Eibar - Tlf: 608 076 054

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

ELEKTRIZITATEA

943 530 356 electricidad
688 674 242 **alberto**

INSTALAZIOAK ETA
instalaciones y mantenimiento
MANTENIMENDUA

WWW.ELECTRICIDADALBERTO.COM
dasilvaalberto@hotmail.es

ANTENAK

BALATZ c.s.

Instalakuntzak eta konponketak
antenas - telebista

Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK

barra 677 51 24 62
943 20 06 97

Ego Gain, 2 - Bac **trinmer**

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com

**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Ur-kizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

Tel. 610 532 922

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko urgentziak

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.

ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA info@ajtoficna.com tlf. 943 20 18 30

AJT Zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A



Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta mantenimendua

IGELTSEROAK

CAMILO ALVAREZ IGELTSERITZA

OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
620 060 104 (Ernesto) / 600 465 789 (Fran)

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

eraikuntzak erreformak igeltseritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA

Gasa Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia

Jardines Iturgintza

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

MUGICA ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA Ari-
kitxaneko Zubian
eta faxa: 943 203 903

PINTURAK

DECORACIONES
AIXA
José Luis Irionda

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etixerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

Urbateko igerilariak txapelketarik-txapelketa

Euskal Herriko hainbat txapelketa jokatu ziren asteburuan. Horrela, **Gazteizen barixakuan eta zapatuan** egindako absoluto eta junior mailako txapelketetan, hainbat domina eskuratu zituzten eibartarrek. Absolutoan, Nekane Tejedorrek urrezkoa lortu zuen 100 bularrean, zilarrezkoa 200ekoan eta brontzezkoa 50ekoan; Nora Varela txapelduna izan zen estilo bereko 200ekoan eta bigarrena 50ekoan; eta Aitzol

Arrillaga 4.a izan zen bizkar estiloko 100 eta 200ekoetan. Juniorretan, Ander Izagirrek urrezkoa irabazi zuen 100 eta 200 libreko probetan eta bigarren geratu zen 50etan; loar Urkiri txapelduna izan zen 200 estilotan eta 3.a 200 bizkarrean; eta Iratxe Moya 4.a izan zen 200 bularrean.

Santurtzin jokaturako infantil mailakoetan, bestalde, Maitte Barruetebeñak irabazi egin zuen 200 bizkarrean, 3.a izan



zen 100 libretan eta 4.a 200 estilotan; Kattalin Izagirrek 3. postuan amaitu zuen 800 li-

bretako proba; eta Anie Erkiaga dominatik gertu ibili zen, 50 bularrean laugarren sailkatuta.



Ermura joan zen bolo-palma torneo

P.B. Montañesa Ermuak 4-1 irabazi zion Eibarko Casa Cantabriari Eibar Hiria bolo-palma torneoaren 28. edizioan. Ohikoaenez, Sanjuanak pasatuta jokatzeko da aipaturako torneo eta, orainoan, aurreko domekan izan zuen hitzordua. Argazkian, ez-

kerretik eskumara, goian: Fernando Bordas (epailea), Daniel Ruiz, Brahim Ben Aissa, Mikel Garcia eta Andoni Rico. Behean: Juan Carlos Castañeda (aita), Eneko Garcia, Said Ben Aissa eta Juan Carlos Castañeda (semea).

Eibar Triatloi Taldearen 25. urteurrena prestatzen

Aurten Eibar Triatloi Taldeak 25 urte beteko dituela eta, hainbat ekitaldi egingo dira. Dina Bilbao triatletari eta Ironmanari buruz egingo diren hitzaldiez aparte, egun nagusia urriaren 11an izango da: egun horretan, goizeko kirol proba batzuren ondoren, Armeria Eskolan bazkaria egingo da eta izena eman daiteke dagoeneko (informazio gehiago <http://www.eibartt.org> web orrian).

Urkik nesken ekipoa osatzen dihardu

Irailean hasiko den 2014/15 denboraldian parte hartzeko asmoz, Urkik infantil mailako nesken taldea dabil osatzen; hori dela-eta, foballean jokatu nahi duten 2001ean eta 2002an jaiotakoek klubetik pasa daitezke (Urkik, 19 B, elizaren ondoan) 19.00etatik 20.00etara edo, bestela, 678-395039 telefono zenbakira deitu, Txusengatik galdetuz.



Baimendutako Harategia

Gure Kalitatea

Giokela

Carniceria Autorizada

MUGIKA

Urkizu, 18
943120194

HARATEGIA

Abuztuan goizez zabalik

Mundialez-Mundial, bederatzikotea Brasilen

Hegoafrika orain dela lau urte bizi zuten esperientzia errepi-katzera joan dira aurten Brasilera gure herriko bederatzikotea lagun. Aitor Arana, Pedro Basurko, Oskar Beraza, Mitxel Cid, Udo Romero, Gaspar Salcedo "Gaspi", Fernan eta Jose Angel Valenciano eta Alex Zuazua dira protagonista: bakoitzak hileroko 60 euro gorde izan dute kontu batean, nahikoa Copacabanen hamar egun berezi pasatzeko. Gorri-urdin kamisetekin eta "Eibar tiene un 11"

ipintzen zuen banderarekin ibili dira harat-honat, gerturazten zitzaizkien jendearekin argazkiak egin eta egin, "bandera gordetzera behartuta egon arte". Lehenengo faseko Costa Rica - Ingalaterra partidua ikusi zuten Belo Horizonten, "horretarako abioia hartu behar izan bagenuen ere, 400 kilometrorra joateko". Brasil eta Txileren arteko partidua Copacabanako kaleetan bizi izan zuten, "hangopantaila erraldoietara begirazeuden milioitik gora lagunekin



Eibartarren kuadrila Copacabanako giroaz disfrutatzen.

batera, gehienak Brasilgo jarraitzaile bero-beroak". Hondartza batean, gainera, Mendilibarren sasoian Eibar FT-n jo-

katu zuten Ricardo Varela urugaiarrarekin egin zuten topo. Orain kaxa egiten hasiko dira 2018an Errusiara joateko.

Joseba Errasti zestoarra Eibarko koloreekin

Zestoarra izanda ere, Joseba Errastik lotura handia du Eibarrekin: "Azkie farmazian egiten dut lan eta familia dexente daukat Eibarren". Zestoako Peña Bartzelonistako presidentea da eta Brasilgo Foball Mundu Txapelketa izan da Ane bere arrebarekin. FIFAkozketa bateko sarrerak eskuratuta, Rio de Janeiron izan dira astebete, Argentina-Bosnia

eta Espainia-Txile partidua ikusteko asmoarekin, "Messiren jarraitzaile sutsua naiz-eta". Hala ere, betidanik jarraitu du Eibar FT eta bere peñak 10 akzio erosi ditu, "gure laguntza txikia eskaintzeko". Eibarrek lortutakoarekin harro, Brasilen taldearen kamiseta eta banderarekin ibili da Kristo Erredentore, Maracana eta beste hainbat tokitan.



Eibar FT-k ekipazio berria aurkeztuko du gaur Untzagan (19.30)

Eibar Foball Taldiak denboraldi berrirako jantziak aurkeztuko ditu gaur arratsaldean Untzagan egingo den ekitaldian. Hummel markarenak izango dira entrenatzeko eta kalera irtetzeko jantziak eta txandal ofiziala. Bestalde, uztailearen 24rako amaitu nahi duten kapital-handitzea kopuru osoaren %97,55ean zegoen atzo goizean: hau da, uztailearen 10ean, epe hori amaitzeko 14 egunen faltan, 42.124 euro batzea falta zitzaion klubari. **Fitxaketei** dagokienez, Javi Lararen (Ponferradina) ondoren, Jaime Jimenez atezaina (Valladolid) eta Angel Rodriguez aurrelaria (Levante) ekarri dituzte. Entrenamenduak datorren astelehenan hasita, **aurredenboraldian** Garitanoren taldeak zazpi partiduko jokatu ditu: UD Logroñes (uztailak 26), Barakaldo (uztailak 30), Racing (abuztuak 2), Numantzia (abuztuak 6), Valladolid (abuztuak 9), Athletic (abuztuak 12, Ipuruan -ziurtatu gabe-) eta Real (abuztuak 15) Zarautzen, Kilometroak jaialdiaren barruan.

EIBAR FOBALL TALDEAREN 75. urteurrena (1940-2015)

*Aprobetxatu oporrak
zuen argazkia guri
bidaltzeko!!*

Argazkiak 1940-2015@sdeibar.com helbidera bidali behar dira, jpg formatuan, Eibar KE-ren web orrira igotzeko. Atxikitu argazkiari agertzen den tokiaren deskribapena. Eibar FT-rekin lotura duten motiboak agertu beharko dira: kamisetak, banderak, bufandak eta horrelakoak. 2016ko urtarilean jakinaraziko da zein izan den argazki irabazlea. Bost sari banatuko dira: kamiseta ofiziala, taldeko jokalariek sinatuta; Eibar FT-ren ligako partiduko bat ikusteko palkorako bi sarrera; aurrekoaren berdina, baina tribunako bi sarrera; Ipuruko instalazioetatik bisita gidatua; eta Eibar FT-ren 75. urteurrenako kamiseta oroigarria.

Eibar

Munduan


Roncoren argazkiak Zarautzen

Ekainaz geroztik Jose Ronco argazkilaria eibartarraren "Tailer-hiria" erakusketa ikusgai dago Zarautzen, Photomuseum argazki eta zinema museoan. Ronco lan handia egin du herriko eraikin industrialei argazkiak ateratzeko. Izan ere, 90. hamarkadan ekin zion beharri, gure herriko hirigintza eraldatzeaz berbetan hasi zirenean eta gaur egun argazkilaritza industrialean aditua da. Erakusketan ikus daitezkeen argazki gehienak orain dela hamabost urte erakusketak duen izenburu berarekin



Antzinako lanbide gehiago

Carmelo Urdangarinek "Antzinako Lanbideak" liburu-sortako 13.a aurkeztu du aste honetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara emandako liburuan, aurretik kaleratutakoen bidetik, gure inguruko hainbat lanbiren berri ematen du egileak. Lanbide-zerrendan, besteak beste zurarekin, zume eta ihiarekin, musikarekin, zaharberritzearekin, buzingintzarekin, itsasoarekin eta zeharberritzearekin lotutakoak daude. Horietako batzuk, gainera, oso bixiak eta arrotzak egingo zaizkio irakurlari. Musikari lotutako lanbideei eskainitako atalean musika-tresnak egiten maisua den Ander Arroitauregi eibartarraren berri ematen du liburua. Lan honetan ere Yulen Zabaleta izan du aldameneari Urdangarinek, berak idatzitakoari laguntzeko argazki eta marrazkiak egiten.



...eta kitto! 14/VII/11 • 897 zkia.

Bertso afarirako txartelak

Aurtengo Arrateko bertso afarian Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzalluz elkarrekin izango ditugu Kantabria jatetxean, ...eta kitto! Euskara Elkarrekin irailaren 7rako antolatua duen ekitaldian. Bertso afarirako txartelen salmenta aste honetan hasi da ...eta kitto!-ko egoitzan (10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara) eta hilaren 18ra arte bakarrik bazkideei salduko zaizkie txartelak (bat bazkide bakoitzeko), 30 eurotan. Eta bazkide ez direnek uztailearen 21etik aurrera izango dute erosteko aukera, Sagar Bitza, Kultu eta Kantabria tabernetan (31 eurotan).



Euskerazko country-rocka zuzenean

El Corte Ingles-ak 3. solairuko terrazan garatzeko egitaraua osatu du udarako eta, horren barruan, gaur 19.00etan zuzeneko musika emanaldia hartuko du terrazako eszenatokiak, country-rock estiloko abestiak euskaraz abesten dituen Crazy Wheels Band taldearen kontzertuan. Iosu Arriola (baxua), Mikel Sainz de Rozas (Hammond B3, pianoa), Ina Arriola (ahotsa, gitarra), Juan Fernandez (bateria) eta Xabimen Aretxabaletak (gitarra) osatutako taldeak 2012an maketa grabatu eta gero, 2013koabenduan "Gogor, Erne" izenburuko diskoa kaleratu zuen eta gaurko saiora gerturatzeko direnek taldearen musikarekin bertatik bertara gozatzeko aukera paregabea izango du.

Tripontziak lehiaketako irabazleak

Debegesak eta Debabarreneko Klub Gastronomikoak elkarrekin sustatutako Tripontziak lehiaketako irabazleak @libargutxi eta @ainhilarra izan dira, argazki originalaren saria jaso duen @I1vigui erabiltzailearekin batera. Lehenengoz egin



den lehiaketan parte hartzeko ekimenarekin bat egin zuten eskualdeko taberna eta jatetxeetan jandakoari argazkia egin eta Twitterrean igo, besterik ez zen egin behar. Hiru irabazleek sari sorta bikaina jasoko dute: lagun birendako gau bateko egonaldia eta gosaria Perlakua-Saka nekazalturismo jatetxean (Deban), lagun birendako bazkaria edo afaria ekimenarekin bat eginda lehiaketan parte hartu duten hamabi jatetxeetako batean eta, horrez gain, klubeko kideen produktuekin (Goienetxe eta Goikolako gazta, Txindurri Iturriko sagardo ekologikoa eta Mendaroko Txokolatateak) osatutako otarra ere eramango dute.

Eibarko gastadoreak Lasarten

Argazkian ikusten dituzuen Eibarko danborradako hamairu gastadoreak, azken hamar urteetan egindakoaren bidetik, aurtan ere Lasarte-Oriara joan ziren San Pedro egunaren bezperan, gauz egiten duten danborradan parte hartzera.



Lambrettak, asteburuko errege

Asteburu honetan hamaikagarrenez egingo da Eibarren Lambretta motorren kontzentrazioa, gure herriko Lambretta Klubekoen ekimenez. Egitaraua osatzen aurreko edizioetan egindakoari jarraitu diote eta, beraz, bihar goizetik ekingo diote, 09.00etatik 12.00etara kontzentrazioan parte hartuko dutenei akreditazioa banatuta eta Untzagan motorrak erakutsita. Jarraian herriko kaleetan zehar ibiliko dira eta 13.00etan San Kristobalera igotzeko bidea hartuko dute,



auzoko jaiekin bat eginda bertan bazkaltzeko. Arratsaldean motorzaleak Eibar eta inguruan ibiliko dira eta eguna afari-merienda "lambretteroa" eginda agurtuko dute. Eta domeka goizean inguruetan motorrean ibili eta gero, hurrengo urtera arte agurtuko dira. Horrekin batera, Lambretta motorren kontzentrazioaren harira, Estaziño kalean eta inguruan Zona 10 poteo berezia antolatu dute gaurko Zona 10 elkarteak, Lambretta Klubak eta Angulas Aguinagak.



San Fermin Txiki jaia

Iruñean baino egun bat geroago, astlehenean irakurri zuten sanferminetako pregoia gure herriko umeek, anbulatorio pareko parkean hasi eta Untzagaraino San Fermin bera gidari zutela kalejira amaitu eta jarraian. Urteroko martxari jarraituta, jaialdia Astixaren udako Afariketaren programaren barruan garatu da eta, pregoilariak eta San Fermin udaletxeko balcoira irten eta bota dituzten gozokiak hartu eta gero, pareko plazan jarraitu zuen jaia, Gorritiren zezentxo eta beste animaliekin.

laburrak

ARGAZKI RALLYKO ERAKUSKETA

Eibarko Klub Deportiboak maiatzean antolatutako argazki rallyko lanekin erakusketa prestatu dute. Lanak uztailearen 31ra arte egongo dira ikusgai Portalea tabernan.

CIELITO

Urtero lez, udako gauak girotzeko emanaldi berezia eskainiko du Cielito Musika Taldeak: hilaren 18an (barixakuan) emango dute kontzertu berezi hori, Toribio Etxebarria kalean, 23.00etan hasita.



ARRATERAKO POSTUAK

Arrateko jaietan salmenta postua jarri nahi dutenetzat eskaerak aurkezteko epea zabalik dago. Interesa dutenek uztailearen 18ra arte (13.30ak arte) izango dute horretarako aukera, Pegoran.

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13

Orbeako dorreetako
1. solairua

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- | | |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 11 Barne Medikuntza |
| 2 Zirurgia | 12 Radiologia |
| 3 Dermatologia | 13 Urologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 14 Traumatologia |
| 5 Análisi Klinikoak | 15 Koloproktologia |
| 6 Ortodontzia | 16 Erizaintza |
| 7 Otorrinolaringologia | 17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria | 18 Foto-depilazio Unitatea |
| 9 Psikiatria | 19 Ginekologia (BERRIA) |
| 10 Neurologia | |



PATRI ETA ITZI: OSO GUSTORA EGON GARA ZUEKIN.

Muxu haundi bat Maddi, Noa, Jon, Julen, Hiart, Itxaso, Shannon, Iare, Iraj, Miren, Uxue, Maialen eta Mikelen partez.
ESKERRIK ASKO ETA ONDO SEGI.

25 urte dira Ikus-entzunezkoen Astea hasi zala egitten

Ekitaldixaren zillarrezko ezteiak hamendik urte bira ospatuko badittue be (bi urtetan ez zan Astia egiñ), aurten bete dittu 25 urte guzti hauetan hainbat aldaketa izan dittuen ekimenak. 1989ko maiatzaren 8ttik 13ra egin zan Audiobisualaren I. ediziñua, sei egunetan banatuta, eta Pedro Gonzalez, Martin Jauja, Angel Rodriguez, Mari Abrego, Mikel Garaikoe-txea eta Javier Juanesen parte-hartziarekin. "Oso egoera kaxkarrian eguan Kultuko antzerki aretuan egin genduazan proiektziñuak eta baita hurrengo urtekuak be", diñosku hasieratik Ikus-entzunezkoen Astian lan egin daben Fernando Retolaza argazkilarixak. Kepa Gonzalezekin eta Martin Bono Jaujarekin hasierako urtietako Astiaren pisua hartu zeban Retolazak eta, gaur egun be, fin-fin laguntzen, Kultuko programaziñuan diharduten Dani Astarloari eta Nerea Ibarluzeari.

Fernandok gogoratzen dabe-nez, "lehelengo ediziño hartan, Abregoren emonaldixan, Kultuko antzerkiko lehelengo illarako aulkixak arrankau gendua-

zen kondiziño kaxkarrian egua-zelako". Hurrengo urtietan, Kulturala laga eta udaletxeko hainbat aretotan hasi ziran egitten proiektziñuok, "Kultura aretuan hasi eta Pleno aretuan amaitze-raiño eta, arrakasta haiñ haundixa izan zan askotan espazio barik geratzen giñala". 1994ra-ko baliabide teknikuak asko aurreratu ziran eta "proiektore batekua baztertuta, bi, lau eta zortzirekin aldi berian emoten genduazan". Lehelengo urtietako kartelaren irudixa Iñaki Larrañaga pintoriarena izaten zan, "jendiak kontu haundixarekin kendu eta eurekin kuadrak egitteko aprobetxatzen zittuanak", eta 1995ian "gero beste lau ediziñotan lagunduko zeskun" Barojaren grabadu batek hartuko dau kartela.

Udaletxia barritzeko lanak Portalera eruan zittuan proiektziñuak: "Guk inauguratu genduazan instalaziño barrixak. Urte horretan Gasherbrumera juandako Klub Deportiboko lau mendizaleren proiektziñua izan zan". Eta 1997xan Natxo Zenborain izan zan protagonista "benetako mundu psikodelikora eraman ginttuen-eta, ka-

sete zinta bat, proiektoria eta bere eskuekin".

Eta 1999xan, edurtiak zirala-eta Astia bertan behera laga bihar eben antolatzaiillak. Maiatzian hasi zan ekitaldixa gero ekaiñera pasatu zan eta, jarraixan, udazkenera "edurtiana gertatu zan arte". Horko tartia gaur egun Asier Errastiren laburmetraien jaialdixak hartu eban eta Ikus-Entzunezkoak julixora pasatu ziran.

Jarraitzaille fidelak

Hasierako sei urtiak laura murriztu dira azken aldixan eta eszenarixua be aberatsagua egin jaku, San Andres elizako klaustruarekin. Beti be eguraldixa lagun izanda, "bestela, Kultun izaten dabelako ordezo tokixa". Azken urtietan hiru proiektziño eta beste modalidade bateko azken eguna izaten dau egitarauak: "Aurtengo moduan, antzerkixa izan leike; errezitaldixak be sartzen dittugu, antzerki irakorria...", diño Dani Astarloak. Gauza barrixen billa be bada-biz eta, "horregaittik proposau gentsan Berreibarrekueri, herriko jendia izanda oso aktibuk diralako. Azken ediziñotan Mila Gallastegi eta Asier Arantzabal be askotan ekarri dittugu".

Klaustruak inguru edarra eta leku asko eskintzen dau. "Abadia be oso ondo portatzen da gurekin, erraztasunak eskinduta. Argixekin arazuak izan dittugu batzuetan, batzuk amatau egin bihar diralako Zu-



Fernando Retolaza eta Dani Astarloa, lehelengoko ediziño kartelen aurrian. SILBIA HERNANDEZ

loagatarren kalia, baiña ondo moldatzen gara", dioskue antolatzaiillak. Urtez-urte jende barrixa gehitzen bajakue be, "batez be, jende fidela dake Ikus-entzunezkuak, beti datozenak eta parte hartzen dabenak ekartzen dittuen inguruak. Jende heldua gaztiak baiño gehixago". Teknologixan egin diran aurrerapenak aittatzen dittue antolatzaiillak, "hasierako diapositiba eta proiektore bakarretik gaur egungo digitaletara pasau gara". Klaustruan lehelengo urtian Kepa Gonzalezek alkilatutako pantailla bat erabilli eben, baiña ordutik hona "Unibersidade Laboraleko Iñaki Aldai lagatakuarekin funtzionatzen dogu. Eskertzeku da", diño Astarloak.

Klub Deportibotik bultzatutako ekimena indartsu dago egun Arrate Kultur Elkartiak horren arduria hartuta. Bixen arteko alkarlanak posible egingo dau hamendik urte bira "zillarrezko ezteietarako programa berezixa prestatzia".



Aurtengo ediziñuan izan zan tartia mende laurdena ospatzeko. Hasieratik parte hartu daben Martin Bono tartiak. FERNANDO RETOLAZA

farmaziak

- ✓ **barixakua 11**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **zapatua 12**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **domeka 13**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **astelehena 14**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **martitzena 15**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **eguztana 16**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguna 17**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **barixakua 18**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **zapatua 19**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **domeka 20**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **astelehena 21**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **martitzena 22**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguztana 23**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguna 24**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **barixakua 25**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **zapatua 26**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **domeka 27**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **astelehena 28**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **martitzena 29**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguztana 30**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguna 31**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

ABUZZTUA

- ✓ **barixakua 1**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **zapatua 2**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **domeka 3**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **astelehena 4**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **martitzena 5**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguztana 6**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguna 7**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

- ✓ **barixakua 8**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **zapatua 9**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **domeka 10**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **astelehena 11**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **martitzena 12**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguztana 13**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguna 14**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **barixakua 15**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **zapatua 16**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **domeka 17**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **astelehena 18**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **martitzena 19**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguztana 20**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **eguna 21**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **barixakua 22**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **zapatua 23**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **domeka 24**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **astelehena 25**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **martitzena 26**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **eguztana 27**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguna 28**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **barixakua 29**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **zapatua 30**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **domeka 31**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

IRAILA

- ✓ **astelehena 1**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **martitzena 2**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguztana 3**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **eguna 4**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **barixakua 5**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epategia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdia	..943 46 46 22
Gurutze Gorria	...943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiero eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegunak: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egutegia: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltzekotan: publizitatea@etakitto.com



Zorionak, GARI, abuztuaren 6xan sei urte egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Josuren partez.



Zorionak, GAIZKA Aristondo, gure txapeldunak bixar sei urte egingo diittu-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, MAIALEN Barrutia, hillaeren 19xan zortzi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Aizearen partez.




Zorionak, AMETS, printzesa, hillaeren 15ian 10 urte egingo dozuz-eta. Aitatxo, amatxo eta Eiderren partez.



Zorionak, MIREN, hillaeren 22xan 3 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Amaiaeren partez.



Zorionak, IAN, hillaeren 17xan hiru urte egingo dozuzelako. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Nadiaren partez.




Zorionak, OLATZ, bixar zortzi urte beteko dozuzelako. Beste zortzi muxu famelixaren partez.



Zorionak, ZOIHARTZE, hillaeren 15ian sei urte beteko dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Jugatxen partez.



Zorionak, ENEKO, hillaeren 20xan lau urte egingo dozuz-eta. Muxu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, HARITZ, hillaeren 19xan lau urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MAIA, gaur bi urte betetzen dozuzelako. Laztan haundi-haundixak famelixaren partez.



Zorionak, NAIA, bixar bi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxeko printzesarentzat famelixaren partez.




Zorionak, EKHI (ekaiñaren 24an sei urte egin zenduazzen) eta PAULE (etzi lau beteko dozuz), polittaaaaaaaak!!! Milla muxu potolo, danon partez!!




Zorionak, AITXITXA, hillaeren 8xan urtiak bete dozuzelako, eta ongi-etorri, TELMO, ekaiñaren 30etik gure artian zagozelako. Etxekuen partez.



Zorionak, UXUE (bixar lau urte beteko dozuzelako) eta OINATZ (abuztuaren 9xan urtetxua egingo dozu-eta). Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ANER eta UXUE, bixar lau urte egingo dozuz-eta. Segi halako lagun onak izaten. Zuen famelixakuen partez.




Zorionak, ITZIAR eta ANGEL, gaur urrezko ezteiak ospatzen dozuz-eta. Muxu haundi bat seme-alaba eta illoben partez.



Zorionak, ANDER eta JON, bixar eta etzi urtiak beteko dozuz-eta. Patxo bana etxeko danon eta, batez be, LUKENen partez.



Zorionak, AMATXO, astelehenian urtiak egingo dozuz-eta. Zure sagutxu MARKEL eta aitatxoren partez.



Zorionak, JOSU (hillaeren 9xan zortzi urte egin zenduazzen) eta DANEL (24an hiru beteko dozuz). Etxekuen partez.

hildakoak

- Jose Maidagan Lopez. 83 urte. 2014-VII-3.
- Jose Luis Prieto Arana. 87 urte. 2014-VII-3.
- Esther Uriguen Landa. 78 urte. 2014-VII-6.

- Manuel Chamorro Garcia. 88 urte. 2014-VII-6.
- Belen Garitano Iraola. 61 urte. 2014-VII-7.
- Julian Osoro Alberdi. 83 urte. 2014-VII-8.

jaiotakoak

- Elaia Alonso Gomez. 2014-VI-28.
- Marwa Essaghouni El Hamzaqui. 2014-VII-3.
- Izaro Arriola Ansotegi. 2014-VII-3.
- Irati Arriola Ansotegi. 2014-VII-3.
- Jon Arrate Perez. 2014-VII-5.

BARIXAKUA 11

AMAÑAKO JAIK

14.15. Auzoko jubilatuetako bazkaria, Unzaga Plaza hotelean.
21.30. Bertso-afaria. Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Caserio jatetxean.

KONTZERTUA

19.00. Crazy Wheels Band (country-rock, euskeraz) taldea. El Corte Inglesean (terrazan).

SANKRISTOBALGO JAIK

19.00. Txupinazoa.
19.10. Auzokide ezagunari omenaldia: Esteban eta Ernes. Borda tabernan. Kalejira, orkestrarekin.
19.30. Umeendako jolasak (F. Malleako parkean). Dardo txapelketa 16 urtetik beherakoentzat. Tortila, txorizoa, gazta eta urdaiazpikoa, abernetan eta Batzordearen txosnan.
23.00. Melissa&The Jacks taldearen kontzertua.
00.00. La Leñera, Leñoren abestiak eskaintzen dituen taldearen kontzertua.
02.00. Rock Greatest Hits.

ZAPATUA 12

LAMBRETTA JAIK

09.00-12.00. Parte-hartzaileen akreditazioa eta motorren erakusketa, Untzagan.
12.00. Kalejira herriko kaleetan.
13.00. Lambretta motorren XI. Igoera San Kristobalera.
14.30. Bazkaria eta oroigarri banaketa.
17.30. Irteera, Lambretta motorrekin.
21.00. Afari-merienda "lambretteroa".

SAN KRISTOBALGO JAIK

10.30. Umeendako marrazki lehiaketa.
11.30. Molto motorren kontzentrazioa eta lasterketa, umeendako.
12.30. Sandia-jana (Aizarnako parkean).
13.00. Lambretten igoera. Hamaietako eta motorren erakusketa.
18.00. Toka txapelketa 16 urtetik beherakoentzat.
19.00. XIV. Dardo Txapelketa (helduentzat).
21.00. Herri-afaria.
23.00. "Que tiempo tan feliz" (60-70. hamarkadetako guatekea).
00.30. Udako jaia, Alcantara orkestrarekin.
03.00. Txokolata-jana.

EIBAR-SAHARA

11.30-20.00. Erabilitako liburuen azoka, Eibar-Sahara Elkartearen eskutik. Untzagan.

UMEENDAKO TAILERRA

18.00. "Betaurreko dibertigarriak" umeendako tailerra. El Corte Inglesean (3. solairuko terrazan).

DOMEKA 13

LAMBRETTA JAIK

10.30. Irteera Lambretta motorreki eta agurra.

AMAÑAKO JAIK

11.00. Meza, Goruntz-en emanaldiak lagunduta. Amañako elizan

SAN KRISTOBALGO JAIK

11.00. Ohe-elastikoak eta xaboi tailerra (F. Malleako parkean).
12.00. Meza.
12.30. Patatak Errioxar Erara txapelketa.
13.00. Luntxa.
17.30. Freskagarriak eta goxokiak, umeentzat.
18.00. Gorixoren zezentxo eta ponyak.
19.00. Lehiaketako irabazleei sariak banatzea.
19.30. DJ Araba.
20.30. Errifaren zozketa.
21.30. Jai amaiera traka.

EIBAR-SAHARA

11.30-20.00. Erabilitako liburuen azoka, Eibar-Sahara Elkartearen eskutik. Untzagan.

BARIXAKUA 18

KONTZERTUA

23.00. Cielito Musika Banda. Toribio Etxebarrian.


ZAPATUA 19

KOMEDIA

18.00. Pantxika eta Txinparta clown ikuskizuna. El Corte Inglesean (3. solairuko terrazan).



Zorionak, LORENA (hillaren 5ian 31 egin zenduaz), JUAN LUIS (8xan 60 bete zenduaz) eta ALAITZ (atzo urtetxua egin zenduan). Familixaren eta, batez be, Naiaren partez.




Zorionak, JOSU, hillaren 15ian urtebete egingo dozulako. Etxekuen eta, batez be, Anderren partez.




Zorionak, KEPA Urkizu, atzo bost urte bete zenduaz-eta. Muxu potolo bat etxekuen partez.



Hau sorgin paria! Zorionak, KARMELE (hillaren 11n) eta JUNE (hillaren 15ian), urtiak egiten dozuelako. Hamabi patxo potolo bakotxarentzat etxeko danon partez. Ondo pasau udalekuetan!



Zorionak, SUSANA (hillaren 23ian urtiak beteko dozuzelako) eta MANEX (abuztuaren 8xan urtebete izango dalako jaixo ziñala). Laztan haundi bana aitaxoren eta, batez be, Albaren partez.




Zorionak, ALAZNE, hillaren 30ian lau urte potolo egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixakuen eta, batez be, Markelen partez.



LIZAR: bixar 2 urte txiki, zorionak mutil haundi. Jarraitu gure bizitzak alaitzen.



Zorionak, MIKEL, bixar bost urte beteko dozuz-eta! Muxu haundi bat famelixakuztiaren partez.



Laster: Zorionak, ELAIA! Ea aurpegi hori gelditzen jatzun oparixa jasotzian.



Zorionak, JON Badiola Albizu, hillaren 17xan hiru urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, JUNE Artetxe, hillaren 20xan 10 urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 632-192408.
- Lagun bakarrak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 656-758793.
- Pisua alokatzen da Eibarko Arane kaleko Jatako eraikinean. Logela bakarrekoa. Altzairu berriak eta diseinuzkoak. 500 euro. Tel. 645-735442.
- Gizonezkoak etxe txikia hartuko luke alokairuan. Tel. 603-225505.
- Pisu berria alokagai Eibarko erdialdean. 2 logela, egongela, 2 komun, balkoia eta garajea. Igogailua. 75 m². Jantzita. Tel. 685-728995.
- Pisua alokatzen da Donostiako Gros auzoan. Ikasleentzako egokia, unibertsitateko eskolak irauten duten sasoiari. 3 logelekoa. Tel. 639-775253. Juan Andres.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-500 euro ordaintzeko prest. Tel. 632-506970 eta 632-337083.
- Pisua alokagai Jardiriñeta kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. Tel. 690-018786.
- Etxea alokagai. Bikote edo lagun bakarrarentzat oso aproposa. 2 logela, egongela eta sukaldea. 55 m². Oso egokia. Argitasun handikoa. 550 euro. Tel. 687-922254.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Orduka, gauzez edo interna. Tel. 672-867999.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. Tel. 631-385949.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 679-946934.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Abuztuaren erdian. Tel. 606-906729.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-147559.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-192408.
- Mutila eskaintzen da lan egiteko: igeltsaritza, konponketak... Tel. 673-271449 eta 632-569245.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-408528.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 682-277198.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Interna. Tel. 674-713262.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 636-302237.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-498697.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 670-251265.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-030789.
- Emakumea eskaintzen da orduka edo asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-366850.
- Neska eskaintzen da uda sasoiari umeak zaintzeko eta dendari jarduteko. Tel. 638-002368.
- Mutil euskalduna eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 618-875007.
- Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 689-391261.
- Bikotea eskaintzen da soziedadek edo lokalak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 651-545260.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 632-836130.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta beste edozertarako. Tel. 631-110716.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-010369.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketara lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 681-065683.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 695-804895.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 638-908730.
- Mutila eskaintzen da ganbarak garbitzeko, garraioetan laguntzeko, pintatzeko, nagusiak zaintzeko. Tel. 632-

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdur/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

951012. Carmelo.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 680-526228.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, baita animaliak ere, eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-430985.
- Neska eskaintzen da goizez eta arratsaldez umeak eskolara eramateko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-611454.
- Neska eskaintzen da garbiketara lanetarako eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 674-713262.
- Neska eskaintzen da kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko, garbiketara lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 652-700744.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Baita gauzez ere. Tel. 600-005160
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskolako lanak egiten laguntzeko. Tel. 632-337083.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 636-779634.

4.2. Langile bila

- Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 679-918437.
- Kamarera/o behar da asteburu eta gauetarako. tre@euskalnet.net
- Kamarera/o behar da Soralezko jailetarako. 943-750030 eta 670-541347. Oscar.
- Sukaldari laguntzaile behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculum-a Eibarko 46 posta kutsara.
- Ileapaintzaile-laguntzaile behar da, estetikako oinarriko ezagutzarekin. Itxura ona eta jendetasuna ezinbestekoak. Tel. 619-928881.
- Estetizista behar da, esperientziarekin. Berehala lanean hasteko. Ekarri curriculum-a. Tel. 943-531636.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Fisika eta Matematika klase partikularak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez 4 laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
- Yoga klaseak emango dira uztailean eta abuztuaren Deban. Irakaslea Arantza Arrieta izango da. Tel. 658-709468.

6. Denetarik

6.3. Galdur/Aurkitu

- Kirol poltsa beltza galdur dut Txomoguruan. Tel. 617-467779.

6.4. Bestelakoak

- Jai-Alai, Ariatza eta Mickey Mousse diskoteketako basoazpikoak eta poxpolo-kaxak erosiko nituzke. Tel. 943-572057.

Irailaren 1ean
zabalduko
ditu ateak
“La Bambolina”
ezkontzetarako
jantzi-dendak

Joana Diestre diseinatzailea
eta estilista da, eta Bilbon eta
Portugaleten bi denda zabaldu
eta gero, Eibarrera dator.

Moda-diseinatzaile honek
diseinatzaile gazteen ibiltoki
onenean saria jaso zuen
2008an Vigon.



La Esposa dendak
(Bilboko Gran Vía,
80) 300 m² ditu.
Portugaleteko
La Bambolinak
beste 200.

Joana Diestreren

“La Bambolina” Eibarrera dator

Emaztegai, amabitxi edota gonbidatuentzat **diseinu propioak** egiten ditu dendan bertan dagoen **tailerrean**; baina, horrez gain, ezkongai, gonbidatu eta bestelako ospakizunetarako (lehen jaunartzerako soineko eta trajeak) jantziak egiten dituzten **marka ezagunak** ere aurki daitezke dendan, hala nola, *Yolancris*, *Raimon Bundó*, *Jesus Peiro*, *Cymbeline* ...

Horrez gainera, *Pronovias* eta *Rosa Clará* **etxeekin** ere egiten du lan, eta *San Patrick*, *La Sposa*, *Aire Barcelona* eta *Alma* **markako soinekoak** ere eros daitezke.

Ezkongai **arreta personalizatua** eskaintzen zaie; behar den denbora guztia dedikatzen zaie eta horregatik da beharrezkoa hitzordua aldeztatik eskatzea.



<https://www.facebook.com/laesposagranvia80>
<https://www.facebook.com/labambolinanovias>



Eibarko **Estaziño 14an** zabalduko
den dendak 250 m² izango ditu

Eibarko denda irailaren 1ean
zabalduko bada ere, Bilboko
dendan har daiteke hitzordua
94-4423774 telefonora

deituta. Hitzordua irailaren
hasieran hartzen dutenei,
%15eko deskontua egingo zaie.

Denboraldi berria irailean hasiko da
eta, beraz, estatuko
diseinatzaile onenen 2015eko
kolekzioko soinekoak izango dira.

www.laesposa.net
www.la-bambolina.es

Asko dira gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 **innova**dental
CLINICAS



Createch Medical-en

etorkizuna gerturaten dizugu,
implanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 **innova**dental [**Azpeitia**]
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com